




GITARRA ZAHARTXO BAT DET



Doinuaren jasotzaileak: G. Etxeberria, J.A. Santesteban.

Bertso honen egilea: Joxe Mari Iparragirre (1820 Urretxu – 1881 Itxaso, Gipuzkoa).

Bertsoaren berri

Kantu honetan Iparragirrek azaltzen du nola dabilen munduan barna, artista bizimoduan, gitarraz kantari.

Lehen Gerrate Karlista hasi zenean, 14 urterekin, soldadu sartu zen batailo karlistan. Gerran hasi zen Iparragirre gitarra jotzen, kantuan eta bertsoan. Frantzia, Suitza, Italia, Alemanian, Londresen eta Ameriketara izan zen. Buenos Airesen (Argentinan) bizi izan zen urtetan eta 1878an itzuli zen Euskal Herrira. Omenaldi asko egin zizkioten arren, guztiz pobre bizi izan zen hil arte.

Gitarra zahartxo bat det
nik nere **laguna**
honela ibiltzen da
artista **euskalduna**
egun batean pobre
beste batez **jauna**
kantari pasatzen det
nik beti **eguna**.

